



## ALDIZKARI OFIZIALA

### BOLETIN OFICIAL

XI LEGISLATURA

XI. AGINTALDIA

**Serie B** Información, control e impulso

**XXV** Proposición no de norma

Informazioa, kontrola eta sustapena **B Sailsa**

Arauz besteko proposamena **XXV**

Número 212a

Bilbo, 2022ko urriaren 7a  
Bilbao, 7 de octubre de 2022

212a alea

**ASUNTO:** El control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

**AUTOR:** Andrade Aurrecochea, Eduardo

#### Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 4 de octubre de 2022, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.

**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor

**Órgano Destino de Tramitación:** Pleno

**Procedimiento de Tramitación:** Normal

**Plazos:**

Presentación de enmiendas a la proposición no de Norma: 7 días. Finaliza el 19 de octubre, a las 18:30 horas

**Otros acuerdos**

Ordenar la apertura del plazo de enmiendas

Ordenar Publicación en el BOJJGG

Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable

**Regulaciones:**

Reglamento: Artículo 175 y sgts. Artículo 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 7 de octubre de 2022.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

#### A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Eduardo ANDRADE AURRECOECHEA, Portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente PROPOSICION NO DE NORMA para su debate en pleno, sobre el control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

#### JUSTIFICACION

Ya desde su origen el colegislador europeo esperaba que los planes de recuperación se redactasen mediante un sistema participativo, donde los diferentes grupos de interés puedan alinear los intereses de sus colectivos. En Bizkaia esto no fue así.

**GAIA:** Europako funtsen kontrola eta horreen jarraipena

**EGILEA:** Andrade Aurrecochea, Eduardo

#### Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea

Aitaturako gaia dala-eta, honako erabagi honeek hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiaik 2022ko urriaren 4an izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea

**Sailkapena:** Egileak proposaturako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Osokoa

**Prozedura:** Arrunta

**Epea:**

Arauz besteko proposamenari zuzenketa-eskeak aurkezteko: 7 egun. Amaiera: urriaren 19an, 18:30ean

**Beste erabagi batzuk**

Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintzea

BBNAn argitaratzeko agintzea

Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarrian aurreikusitako ondorioetarako

**Araudi oinarria:**

Araudia: 175. artikulua eta hurreng. 92. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezkan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2022ko urriaren 7an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri**.

#### BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIRI

Eduardo ANDRADE AURRECOECHEA, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeko taldeburuak, indarrean dagoan Araudiaren arabera, ARAUZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkezten dau Europako funtsen kontrola eta horreen jarraipena dirala-eta, Osoko Batzarrean eztabaidatu daiten.

#### ERRAZOIKETEA

Europako legegilekideak hasieratik bertatik espero eban suspertze-planak parte-hartze sistemearen bidez idaztea eta era horretan interes-taldeen euren interesak lerrokatu ahal izatea. Bizkaian ez zan holan egin.

Pero el Gobierno Foral no ha estado a la altura de las circunstancias, y se perdió la oportunidad de aparcir la búsqueda de protagonismos políticos y dialogar, cuanto menos, con los grupos que forman esta cámara. Con luz y taquígrafos.

Por ello es necesaria una rectificación, y esta rectificación supone que los fondos europeos se ejecuten con luz y taquígrafos, respetando la imprescindible transparencia, integridad, eficacia y eficiencia en el gasto público, e introduciendo, para ello, mecanismos de participación y colaboración en los controles y el seguimiento de la ejecución de los mismos.

Y es que el parlamento vizcaíno, que representa la voluntad de todos no puede, una vez más, ser mantenido en la marginalidad, como un convidado de piedra, ante una gran oportunidad, pero también ante una gran responsabilidad, no de un gobierno sino de la sociedad en su conjunto.

Para ello se hace ineludible que los representantes de los vizcaínos participen en el control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

Por lo expuesto, el Grupo Mixto PP Bizkaia para su debate en pleno y aprobación la siguiente PROPOSICION NO DE NORMA

“Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a la creación de un órgano para el control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos, que estará integrado por un máximo de doce miembros, que serán designados de modo paritario por la Diputación Foral de Bizkaia y por las Juntas Generales de Bizkaia, garantizándose la representación de cada uno de los grupos junteros existentes en las Juntas Generales con al menos un representante.”

Bilbao, 29 de septiembre de 2022

**Eduardo Andrade Aurrecoechea,**  
Portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia

Baina Foru Gobernuak ez da egoerearen mailan egon, eta aukerea galduta protagonismo politikoak bazter baten itxi eta, gitxienez, Batzar Nagusiotako taldeak berba egiteko. Argitasunez eta gardentasunez.

Horregaitik, jokabide hori zuzendu egin behar da; eta horrek esan gura dau Europako funtsak argitasunez eta gardentasunez gauzatu behar dirala, gastu publikoan ezinbestekoak diran gardentasuna, osotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia errespetatuz. Horretarako, bada, funtsen gauzate horri kontrola eta jarraipena egiteko, parte hartze- eta lankidetzatresnak sartu beharko dira.

Bizkaiko parlamentua —guztionez borondatea ordezkatzeko dau eta— ezin da, beste behin be, bazter baten geratu, harrizko gonbidatua balitz legez, aurrean aukera handi bat (baita erantzukizun handi bat be) dogu eta, ez gobernuak, gizar osoak baino.

Horregaitik, bada, bizkaitarren ordezkariak parte hartu behar dabe Europako funtsei kontrola eta jarraipena egiten.

Azaldutakoaren ondorioz, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak ARAUZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkezten dau Osoko Batzarrean eztabaidatu eta onartu daiten:

“Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie Europako funtsen betearazpenaren kontrola eta jarraipena egiteko organoa sortu daiala. Organo hori gehienez hamabi kidek osatuko dabe, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek parekotasunez izendaturikoak, beti be Batzar Nagusietan batzarkiderik dauen talde bakotzak gitxienez ordezkari bana izanik.”

Bilbon, 2022ko irailaren 29an

**Eduardo Andrade Aurrecoechea,**  
Talde Berezia-PP Bizkaia taldeko taldeburua